

B

BARREN

TOKIKOM



Mendizaletasunaren festa

**ALOKAIRUAN,
baina erosteko
aukerarekin!**

**Aukera ezin hobea
aprobetxatu!**



- ✦ Etxebizitza BERRIAK
- ✦ Banco Guipuzcoanok finantzatutako obra
- ✦ Berahala eskiruratzeko aukera
- ✦ Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- ✦ Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- ✦ Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin

230.000 €tik aurrera
garajea eta
trastelekua barne



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B
Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR



Justo Arriola

Eskerrak, hi, amaittu dala mo-zorro-dantza aspergarrixa. “Dena herriaren alde” maskara jarritta kamereri erne. Hauteskunde garaixan elkar joka ibilli arren, jendia izorrazteko orduan ez juek ados jartzeko okasia galtzen: zergak eta preziuak ixo, bankarixak



Arkaitz Irureta

erreskatatu, jubilatua itto, soldatak eta gastu soziala jeitsi, eskubi-diak zapaldu, dirua lapurtu; hala ere, langille eta langabetu batzuek botua ematen jauek botere ekonomikuaren peoi leialak diran EAJ, PSOE eta PPri. Ulertzen dok halako domestikaziorik? Nik ez juat ezagutu oiñ-dio otsuetaz fidatzen dan ardirik.

Zentral nuklearren lagun hónek beti jaukek aitzakixaren bat Ama Lurra, ondaria eta gu geu arriskuan jartzeko: Lemoiz (ala azak), Jaizkibel, AHT, Praileaitz, Itoitz, errauskailluak, hirigintza basatixa, armagintza.

Noiz arte segituko juek gizurtero profesionalak bestioi pedigri demokratikua eskatzen? Ez juek izan ba zalantzarik biolentzia erabilli eta euren helburuak lortzeko: lege faxistak, polizien jipoiak eta balak, gerra zikiña (garbirik ba ete?), hilketa “humanitariuak” (oiñ Libian), tortura, bortxaketa.

“Eskerrak, hi, amaittu dala mo-zorro-dantza aspergarrixa!”

Entzun genian Durangon Zapaterori “aste honetan, eta aurrekoan, ikusi dugu, ez diegula arnasarik hartzen utziko” esaten, orduantxe atxilotutakoen inferuari barre egiñez.

Faxismoz kutsatutako psikopatokrazia honi emandako bi ostikadak poztu najuek: Bilduren uzta oparuak eta estatuko plaza ugarritan entzuten ari dan garrasi errebeldiak.

Maiatzaren 15ekuak bezala, neu ere ziharo nazkatu nauk kanpañetaz. Pare bat astian mitiñak bota eta lau urtian txantxulleua libre? Nola leike honi demokrazia deitzia?

Suitzatik bueltatu berri nauk. Ez nauk hango sistemien jarraitzaile sutsua, halere, badagok handik ekarri geinkenik. Badarik hango demokraziari erdi parte hartzaillia deitzen diuela?

Ia zortzi millioi biztanle dittuk, eta 50.000 siñadura nahikoa dittuk parlamentuaren erabaki bat kuestionatzeko, erreferendum bat eskatzeko. Erreferendumian erabakitzen dena loteslia duk, noski. Badarik ze indar den hori?

Elgoibarren horrek zera esan nahiko jua, 11.000 biztanletatik 70 bat siñadura nahikua lirakela erreferenduma egittek.

“Maiatzaren 15ekuak bezala, neu ere ziharo nazkatu nauk kanpañetaz”

Zenbat aldiz aurkeztu dizkiagu ehun siñaduratik gora? Ze kasu egin digue?

Hemen erdi ez, hemen txuleriaz parte hartzaile osuak gaittukela esaten juek gaiñera, iruzurreko eta loteslia ez dan parte-hartziari erreferentzia egiten, lotsagabiok! Jendia frustratu eta parte-hartzia gutxitzen ari dittuk.

Ez nauk Udala desegin eta asanblada bidez funtzionatzia eskatzen ari oraindik, kanpañako dirutza herritarroi entzuteko erabilli bihar-ko litzatekeela esaten baizik!

Mutrikuko portutik hasi, Praileaitz, Pasaiaiko portua, errauskailua eta zergaittik ez, AHT ere Bilduren eskutan geratu dok orain-guan; Elgoibarren ez bezala, eskualdian eta probintzian iritzi kritikua gaillendu dok. Hona aukera parte-hartzia eta luzerako aberastasu-na garatzeko.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
 San Frantzisko 49 - I Tel: 943 741 189

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
 Kanpo eta barneko estaldura
 Zolak erortzen
 Lantekura: egur, aluminio, PVC
 Pintura orokorra
 San Roke, 7 behea
 Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
 Tel. 943 749 676

GORKA MIR

GAZTE EKINTZAILEA

“Krisi egoeran enpresa bat sortzekotan zerbait berria egin behar da”



Ekintzailearen Eguna izan zen atzo Debabarrenean, eta horren harira, gazte ekintzaile batekin hitz egin du BARRENEK. Gorka Mir, 30 urteko gaztea, Laserlan enpresaren sortzailea da. Orain dela urtebete inguru sortu zuen enpresa, eta autonomo modura egiten du lan, erreminta makina alorreko enpresei laser zerbitzua eskaintzen. Krisialdiak bete-betean harrapatu du, eta jende askok esan dio erabaki ausarta hartu zuela, baina momentuz ez da damutzen hartutako erabakiaz. Hasiera guztiak gogorrak izaten direla badaki, baina urtebete honen balorazio positiboa egin du. Laserlan enpresarekin batera, beste hamabi enpresa sortu ziren 2010ean Elgoibarren, Debegesak lagunduta.

Nola animatu zinen zure kabuz enpresa sortzera?

2010eko urtarrilean lanik gabe geratu nintzen, eta orduan hasi zen gutzia. Egia da aurretik ere gai honi buelta batzuk emanak nizkiola eta bezero batekin hitz eginda nengoela. Berak animatu ninduen nire kontura hastera, eta horrela hasi nintzen. Hiru hilabetez langabezian egon ondoren, iazko maiatzean hasi nintzen.

Nolakoa da enpresa berri bat sortzeko prozesua?

Oso zaila, eta are gehiago krisi egoera honetan. Jende askok esaten dit ausarta izan naizela, baina momentu hartan ez neukan aukera askorik. Lan bila hasi behar nuen, eta ez zen lana bilatzeko momentu ona.

Langabezian ere ez nuen egon nahi, baina. Hura zen nire momentua, eta aurrera egiteko erabakia hartu nuen. 30 urte ditut, eta ekintzaile batentzako adin ona dela iruditzen zait.

Debegesaren laguntzaz hamahiru enpresa sortu ziren iaz Debabarrenean. Zein laguntza izan zenituen zuk enpresa sortzeko?

Debegesak laguntza handia eman zidan, eta hori eskertzekoa da. Hasieran oso galduta nengin, eta oso ondo etorri zitzaizkidan Debegesako arduradunek eman zizkidaten aholkuak. Batez ere, zein gastu izango nituen azaldu zidaten, eta argi utzi zidaten enpresa gaizki joanez gero zeintzuk ondotorio izango nituen. Merkatu ikerketa egiten ere laguntzen dute, baina ideia norbe-

rak eduki behar du argi. Gaur egun ideia original bat edukitzea oso zaila da.

Eta zuk argi zeneukan zein enpresa mota sortu nahi zenuen?

Bai. Krisi egoeran enpresa bat sortzekotan zerbait berria eta berritzailea egin behar da, eta bakarrik lan egiteko aukera ematen duena. Ni autonomo bezala hasi naiz, eta aurrera begira ikusiko dut beste aukerarik dagoen. Laser kontu honetan bi edo hiru enpresa bakarrik daude Euskal Herrian, eta errentagarritasuna ematen du. Zailena lana bilatzea da, bezeroei konfiantza eman behar zaie.

Laserlan izena jarri diozu enpresari. Zein da zure lana?

Laser makina bat daukat, eta enpresei eskaintzen diet zerbitzua. Pieza geometrikoak

egiazatzeko balio du laserrak; hau da, ia tolerantzia neurrien barruan dauden egiaztazen du. Enpresa batzuek badute laserra, baina beste askok ez, eta horiei ematen diet zerbitzua. Enpresetara joaten naiz nire laser makinarekin, eta neurtu beharreko pieza hori montajera ondo iritsiko dela bermatzen dut. Modu horretan gastuak asko murrizten dira.

Gazte ekintzailea izateko aukera nahikoa da-goela iruditzen zaizu?

Ez, oso zaila da. Lehen autonomo izateagatik diru-laguntza batzuk ematen zituzten, baina orain ez. Ahalik eta gastu gutxien egiten saiatu naiz, baina hala ere, hasierako inbertsioa handia izan da. Gainera, banketxeek ez dute erraztasunik ematen. Nik Debegesaren bidez lortu dut Laser makina erosteko finantziarioa. Ekintzailetasuna bultzatu behar dela esaten dute erakundeek, baina gero gazteei ez zaie enpresak sortzeko erraztasun askorik ematen. Borondatea badago, baina krisi egoera honetan, erakundeen diskurtsoa hitzetan geratzen da. Zaila dela badakigu, baina hitzetatik praktikara pasatu behar da. Ekintzaile batentzat laguntza ezinbestekoa da.

Urtebete pasatu da enpresa sortu zenuenetik. Zein da zure balorazioa?

Momentuz ezin naiz kexatu. Lana badaukat, eta jende asko ezagutzen ari naiz. Lan apur bat gehiago nahiko nuke, baina badaikit hasiera guztiak oso gogorak izaten direla. Krisi egoera honetan enpresek gastuak murriztu dituzte, eta askok ez dute laser zerbitzua kontratatzen. Gipuzkoan eta Euskal Herrian ibiltzen naiz bezero bila, baina Madrilgo enpresa batzuekin ere jarri naiz kontaktuan. Bakarrik lan egiten dut, eta neuk egin behar dut komertzial lana ere. Dena neuk egin behar dut: fakturazioa, lana bera, komertzial lana... Horrelako proiektu batean sartzen zaren unetik argi eduki behar duzu ordu pila bat sartu behar izango dituzula.

Lanbide Heziketako moduloa egin zenuen IMHn. Lan mundurako aukera ematen du Lanbide Heziketak?

Bai, baina ikusi egin behar da zure bizitzan noraino iritsi nahi duzun. Lanean hasteko aukera badago, baina lan berean estankatu zaitzke. Gaur egun, enpresek kontuan hartzen dituzte ikasketak, eta gehienek ingeniariak nahi dituzte. Ni orain master bat egiten ari naiz, nire curriculum aberasteko. Ingeniariak

“Momentuz pozik nago, eta ez naiz damutzen hartutako erabakiaz”

gehiago baloratzen dira enpresetan, eta soldatak ere hobekak dituzte.

Zeure burua ekintzailetzat daukazu?

Ba ez nuen uste nire kabuz enpresa bat sortuko nuenik, baina bizitzak horretara bultzatu ninduen. Ikasketak amaitu ondoren, Danobaten hasi nintzen lanean. Bederatzi urte egin nituen han, eta bazkide ere egin ninduten. Baina asko bidaiatzen nuen, eta alaba jaio zenean, beste lan bat bilatzea erabaki nuen. Enpresa hori itxi egin zen, eta argi neukan zerbait egin behar nuela. Momentuz pozik nago, eta ez naiz damutzen hartutako erabakiaz.

Zein abantaila eta desabantaila ditu norberarentzat lan egiteak?

Egia esanda, errazagoa da beste batentzat lan egitea. Zeure orduak sartu, etxera kezkarik gabe joan eta hilabete amaieran soldata jaso. Nire kasuan egiten dudana lanaren arabera kobratzen dut, eta gainera, astelehentetik domekara egon behar dut bezeroen eskura. Baina une honetan, nire kontura lan egiteari abantaila gehiago ikusten dizkiot, desabantailak baino. Ordutegia moldatu dezaket, eta nire alabarekin egoteko aukera gehiago daukat.

Gazteak, oro har, ekintzaileak direla esango zenuke?

Ez. Gehienek nahiago dute beste batentzat lan egitea, eta une honetan, are gehiago. Jende gehiena hilean 1.200 euroko soldatarekin konformatzen da. Enpresa sortzeak buruhauste handiak ematen ditu.

Krisi egoerak hobera egin du?

Apur bat baietz esango nuke, baina enpresek oraindik gutxi kontratatzen dute. Beste urtebete pasatu beharko da, eta lehengora iristea zaila izango da.

Ainhoa Andonegi

Gorka Mir ekintzaile gaztea, bere egitekotan.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO VASCO



MENDIAROKO UDALA



ANE, ANE ET ALIENAK



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Guass ondoko aparkalekua

Joan zen astean zabaldu zuten Guass zegoen tokiko aparkaleku publikoa. Gainera, berehala egin dituzte obrak: inauterietatik hona, Guass bota eta aparkalekua egin. Hori da, hori, martxa! Elgoibarren aparkaleku arazoak deladela denok dakigu, eta hara hor, aparkalekua.

Guztiok ordaintzen ditugu zergak Elgoibarren, baina dirudienek dirua biltzeko behar handiagoa dago. Hara nire sorpresa: BARRENEN irakurri dut astelehenetik larunbatera ordaindu egin behar dela aparkalekua, baina zapatuetan doan dela, 13:00etatik aurrera!

Benetan diru bilketa egin behar bada, herrikoek ordaindu behar al dugu kanpokoek disfrutatu dezaten? Ezin dut ulertu! Elgoibarrera jende asko etortzen da kanpotik larunbatetan (taberna turismoa egitera) eta igandetan, eta a zer kasualitate haientzat doan izango dela!

Beste aukera bat herritarrei laguntzak edo herritar bonoak ematea da. Nire ustez, elgoibartarrok nahikoa zerga ordaintzen ditugu, eta mesedez, ez jarri oztopo gehiago. Krisia guztiok sufritzen dugu-eta!

I.A. ©

Eskerrik asko

Eskerrak ematea besterik ez da geratzen; eskerrak asko azken urteotan Aralar aldaketarako giltza bezala ikusi duzuenoi eta hamar urte hauetan egindako lana baloratzen jakin duzuenoi. Eskerrak asko baita ere Udalean gure presentzia izan nahi arren, beste alderdi batzuei bozkatzeko beharra sentitu duzuenoi, aldaketarako bidean apustu sendoa eginez. Ez da erraza izaten bidea irekitzea; batzuetan jarraitzea ere kosta egiten da, baina garrantzitsuena, beti ere, aurrera jarraitzea da. Guk lanean jarraituko dugu, eta udaletxetik kanpo geratzeak ez digu lan egiteko gogoia kenduko; Auskalo hemendik urtebetera, bi urtera edo hurrengo udal hauteskundeetarako zer gertatzen den politikagintzan... Erreleboa emana geratzen da: bi zinegotzi ezkertiar izatetik, zazpiko talde anitz bat osatzera; Ekin gogor, eta ekarri aldaketa herrira!

Tartean, herrigintzan eragiten jardungo dugu, bai herri mailan baita nazio mailan ere, ea egunen batean Euskal Herri independente,

euskaldun eta sozialista bat ezagutzen dugun, eta bide horretan, lankidetzan aritzeko aukera daukagun; batzuetan, ematen ditugun pausok txikiak diruditen arren, beharrezko eta erabakigarriak izaten dira eta. Eskerrik asko, berriz ere, eta kontent bizi! Gora Euskal Herria askatuta! Gora gu eta gutarrak! Pentsatu prisarik gabe, ekin geratu gabe!

Joanes Rodriguez Soraluze ©

Eskerrik asko

Morkaiko Mendizale Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue Morkaiko Egunagatik. Eskerrik asko parte hartzaile guztiei. Altxolako Uraki, bereziki Iñigo Irustari. Baserritar guztiei, bereziki Irunabe eta Otsourtia etxekoei. Elgoibarko Parrokiari. Goitiri; E. Baltasar, Gure Bide, Karakate, Konporta eta Kalamua elkarteak; Nettori, Eroskiri, Bollari, eta La Pera eta Frupi frutadendei; Zahatzu, Patxi, Iraola, Armueta, Ziarda eta Landa harategiei; Julio Buenori eta Ibartxiki ardoaki, Dori urdaitegiari eta Idarragari. Lanbroa, Usua, Jai Alai eta Mahats tabernei. Jabier Etxeberria, Sabin Txurruka, Valentin Txurruka, Jose Agustin Olasolo eta Jaime Martinez. Jose Ignacio Jauregi, Jose Ignacio Laskurain, Inasio Garmendia, Mari Juli Conde, Joseba Konde, Gloria Barutia, eta Angel Mari Garateri. Carlos eta Iñigo Mugerza eta Zahatzu sukaldariei. Manex San Martin, Amagoia Zubizarreta, Ekine Alkorta, Maider Lete, Amaia Jauregi eta Asier Orbeari. Aitor Zabalari. Imanol Larrañaga, Gaizka Argarate, Ibon Serrano, Jon Peli Uriguen eta Asier Arzamendiri. Roberto Garcia Txetori. Gurtz Aizpuruari, Jose Manuel Fernandez Carreteri eta Jon Lizarralderi. Atxutxiamaikakoei: Ane Odria, Ane Elorza, Leire Garate, Andrea Konde, Nerea Lazkano, Nerea Gurrutxaga, Lore Mendizabal, Bidane Gonzalez, Lide Baz eta Naiara Martin. Udaleko brigadari, bereziki Juan Escuderori. Udal Kirol Patronatuari, Elgoibarko Udalari, Debemeni eta Deba Beheko Mankomunitateari. Kutxa, Banco Guipuzcoano, Rural Kutxa, Bankoa, BSCH, BBVA, Banco Vasconia eta Euskadiko Kutxari. Eta aipamen berezia Pako Iriondori.

Morkaiko 2.0 ©

EAJk eta Bilduk zazpina zinegotzi lortu dituzte Elgoibarren, PSE-EEK bi eskuratu ditu eta PPK bakarra.

Zelako udal gobernua aurreikusten duzu Elgoibarren?



Jose Liberal
71 urte, jubilatua

Batek daki zer irtengo den! Aukera asko daude, eta irteten dena onartu beharko dugu guk. EAJ eta Bildu izan dira alde handiz alderdi bozkatuenak, baina auskalo ados jarriko diren edo ez. Politikan, direnak eta bi esaten dituzte, eta gero eskutik ibiltzen dira denak.



Lia Arano
33 urte, delinearantea

Nik uste dut alderdi abertzaleak ados jarriko direla eta ez dela PSE-EE-ren beharrik izango. Normalena behintzat horrek izan beharko luke: bai Elgoibarren eta bai Euskal Herrian alderdi abertzaleak ados jartzea. Egia esan, baina, berdin zait zer gertatzen den, ez dudalako politika jarraitzen.



Marisol Etxaniz
66 urte, etxekoandrea

Bilduk paper ona egin du bazterguztietan, eta baita hemen ere, baina nik uste dut Elgoibarren EAJk aginduko duela. Ez dakit zer pasatuko den, baina aurreko urteetako esperientzia ikusita, esango nuke EAJkoek sozialistekin egingo dutela akordioa.



Lucia Elorza
74 urte, jubilatua

Nik uste dut EAJk Bildurekin egin beharko lukeela akordioa Elgoibarren, baina egoskor batzuk izango dira tartean, eta zaila ikusten dut, egia esan, hori gertatzea. Iruditzen zait, hala ere, alderdi abertzaleek elkarrekin jokatu beharko luketela.


■ SEMAFOROA



Plaza Txikiko bizilagun batek esandakoaren arabera, argi farola luze hori jarri zutenetik eltxo pila bat sartzen zaizkio etxera: "Plaza Txikian argi farola luze-luze bat jarri zuten, eta, nire ustez, erabat lekuz kanpo dago. Baina hori baino okerragoa da ondorengoa: gauez eltxo pila bat ibiltzen da argi horren inguruan, eta hor aurrean bizi garenon etxeetara sartzen dira eltxo horietako asko. Ezin izaten dugu leihorik zabaldu! Entzun dudanez, Plaza Txikiko beste aldean ere horrelako argi farola bat jartzeko asmoa dauka Udalak, eta mesedez eskatu nahi diot ez jartzeko. Alde Zaharreko ingurunean kalte handia egiten du, eta Plaza Txikiko bizilagunontzako ere kaltegarria da. Eskerrik asko."



Txalo bero bat Morkaikori, mendizaletasunaren festa antolatzeagatik: "Egun zoragarria pasatu genuen domekan, eta Morkaikok txalo bero bat merezi du. 11ko nota ematen diot, 10a ere gainditu egin zuelako. Nagusiek zein gazteek izugarri gozatu genuen. Dena ondo irten zen, eta Plaza Handian sekulako giro ona izan genuen. Egun arrakastatsua benetan. Era berean, Atxutxiamaikako hezitzaileei ere eskerrak eman behar dizkiegu, bazkalostean egin zituzten tailer eta ekintzengantik. Mila esker gutxioi, eta segi horrela".



Urtebeteko esperientziari buruzko balorazio positiboa egin dute Oin Alai ekimenaren sustatzaileek

Urteurrena ospatzeko, Oin Alai berezia antolatu dute ekainaren 3rako

Urtebete joan da Oin Alai ekimena martxan jarri zutenetik, eta esperientzia oso positiboa izan dela nabarmendu dute ekimenaren sustatzaileek. Haurrek eskolarako bidea oinez egiteko sortu zuten Oin Alai, eta denbora honetan guztian dozenaka boluntariok parte hartu dute. Ekimen berritzailea da, eta sona handia izan du Euskal Herrian zein Madrilan. Izan ere, hainbat aipamen eta sari eskuratu ditu, tartean Conama saria. Era berean, Udalsarea 21 sarietako finalista ere izan zen proiektu hau.

Urteurrena ospatzeko, Oin Alai berezia antolatu dute ekainaren 3rako. Ate-irekiak egingo dituzte, datorren ikasturterako Oin Alain izena eman dutenei begira, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, edozeinek parte hartuko du ahal izango du egun horretan, beti ere guraso batek lagunduta. Bestalde, boluntarioen lana eskertzeko, hilero 50 euroko erosketa txkeak zozkatuko dituzte datorren ikasturtean.



Aurten 110 ikaslek parte hartu dute Oin Alai ekimenean.

Txita enpresak kudeatuko du herri barruan salgaiak banatzeko zerbitzua



Donostiako Txita Txirrinda enpresak kudeatuko du salgaiak edo merkantziak herri barruan banatzeko zerbitzua. Gaur egun mezulari enpresetako furgonetak ibiltzen dira hara eta hona, eta hemendik aurrera, Txita Txirrinda enpresako bizikleta-orgak ikusiko ditugu herri barruan, eta enpresa beraren furgoneta elektrikoak, auzoetan. Txita Txirrindak

Autonomia kalean izango du lokala, Sigmako lantegi zaharrraren parean hain zuzen ere, eta hantxe jasoko dituzte mezulari enpresek lagatako paketeak. Han, bizikleta-orgetan edota furgoneta elektrikoetan kargatu eta eurek egingo dute gero banaketa. Mercedes eta Goupil markako bi furgoneta elektriko eta hainbat bizikleta-orga erabiliko dituzte banaketa egiteko, eta bizikleta horietako bakoitzean 180 kilo karga garraiatu ahal izango dituzte. Hasiera batean, mezulari enpresak, merkatariak eta ostalaritza sektorea izango dira zerbitzu honen erabiltzaile nagusiak, baina zerbitzuak harrera ona izaten badu, herritarrei ere zabalduko zaie aukera hau, Gorka Matxinbarrena Txita Txirrindako gerenteak jakinarazi duenez.

Emugi proiektuaren baitan ulertu behar da zerbitzu hau, Elgoibar mugikortasunaren hiriburu bihurtzeko sortutako proiektuaren baitan alegia. Garapen iraunkorra bultzatzeko proiektu honek 700.000 euroko aurrekontua du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Elgoibarko Udalak, EVEK, Ibermaticak eta Elgoibarko zein eskualdeko hainbat enpresek parte hartzen dute bertan.

Irudia **Zikoina**



Eguazten goizean ezohiko irudia ikusi ahal izan zuten Plaza Handitik pasa ziren herritarrek. Izan ere, zikoin bat pausatu zen San Bartolome parrokiako kanpandorrea. Denbora luzea egin zuen zikoinak han goitik Elgoibar zaintzen, eta asko izan ziren, argazki kamerak atera eta irudi hori betiko gorde nahi izan zuten herritarrak eta bisitariak. Ez dakigu parrokiako kanpandorrea leku egokia irudituko ote zitzaion ala ez kabia jartzeko, baina gutxienez irudi bitxia eskaini zigon.

Hedabideak **Hamaika telebista**

Hamaika Telebista TDT bidez ikusi ahal da Elgoibarren. Hau da, Euskaltelen zerbitzuak kontratatuta ez dituenak ere ikusi dezake orain euskarazko telebista, TDTari esker. Telebistan kate hori sintonizatzea aski da gure inguruan gertatzen diren berriak euskaraz jasotzeko.

Irudia **Lambretten bilkura Altzolan**

Domekan Lambretta motoen bilkura egin zuten Altzolan, Zubibai elkarteak antolatuta. Hogei lambretta inguru batu ziren, zein baino zein bereziagoak, eta Altzolako bizilagunek motoan itzulitxo bat egiteko aukera ere izan zuten. Patxi Lejardi Eibarko Lambretten Klubeko arduradunak moto berezi hauen inguruko azalpenak eman zizkien Altzolako frontoian bildutako lagunei, eta ondoren mokadutxo bat jateko aukera izan zuten.



Amadeo Aizpitarte hil da, Mekaren sortzaileetako bat

Amadeo Aizpitarte enpresari elgoibartarra hil da Donostian, 81 urte-rekin. Amadeok Meka Lanbide Heziketako eskolaren sorreran parte hartu zuen 50. hamarkadan, eta bera izan zen lehenengo zuzendaria. Asko eman zion Amadeok erreminta makinari. Aizdon eta Agme enpresen sortzaileetako bat izan zen, besteak beste.



Jubilatuaren egoitzako taberna esleitzeko deialdia

Elgoibarko Udalak luzatu egin du jubilatuaren egoitzako tabernakafetegia esleitzeko lehiaketara aurkezteko epea. Interesatuak Elgoibarko Udalaren webgunean (www.elgoibar.org) eskuratu ditzakete lehiaketan parte hartzeko pleguak, eta ekainaren 6a arteko epea izango dute proposamenak aurkezteko. Informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Udalaren arreta bulegoan eskuratu dezakezue.

Ekainaren 11n zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Ekainaren 11n zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak, eta denboraldia behar bezala hasteko, spinning maratokia antolatu dute egun horretarako. Guztira, 40 bat bizikleta jarriko dituzte, eta 11:00etatik aurrera 45 minutuko hiru saio emango dituzte Kirol Patronatuko monitoreek.

Erretratu zaharra



1948

Aste honetako erretratu zaharra Joaquin Rodriguezek ekarri du BARRENERA. 1948. urteko erretratua da, eta Pilar ikastetxean aterata dago. Erretratuan ikusten den bezala, mutiko guztiak uniformeaz jantzita daude, txintxo-txintxo, argazkilariari begira. Gogora ditzagun zeintzuk diren mutiko horiek. **Lehenengo ilaran, zutik, ezkerretik eskumara:** Joaquin Rodriguez 'Piper', Jose Riaño, Jesus Mari Ansola, Jose Luis Ansola 'Gatito', Sebastian Untzilla, Jose Gabiola, Patxi Irureta eta Jose Luis Zubiaurre (†). **Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara:** Alberto Joue (irakaslea) (†), Peli Uriguen, Luis Mari Leiaristi, Iñaki Intxausti (†), Luis Mari Uria, Jose Iruretagoiena, Rodolfo Cuesta, Imanol Urain 'Txarriduna', Bernardo Ezenarro. **Hirugarren ilaran:** Luis Mari Arregi 'Maiorta', Jesus Mari Etxeberria, Santiago Retolaza, Agustin Arakistain, Francisco Lizarralde 'Agarre', Xabier Arriola, Javier Mari Gabilondo 'Pistolas' (†). **Beheko ilaran:** Jaime Arrese (†), Amado Iriondo, Julio Munuera eta Jose Mari Astigarraga.

ESKERTZA



MANUELA ANSOLA AGIRREGOMEZKORTA

2011ko maiatzaren 17an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



JOSE LUIS ELUSTONDO GORRITI

2011ko maiatzaren 25ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




Martxoan eta apirilean

JAIOTAKOAK



Mikel Egiguren Lolola
Martxoak 8
Aitor eta Nerea



Unax Badiola Etxaide
Martxoak 14
Josu eta Aintzane



Oier Tapia Olaizola
Martxoak 31
Iker eta Aurkene



Martin Serrano Korta
Apirilak 5
Ibon eta Edurne



Zugatz Iraolagoitia
Amillaga Apirilak 8
Igor eta Naiara



Elene Astiazaran
Agirrezabal Apirilak 11
Jon eta Amagoia



Intza Cebrian Saez
Apirilak 20
Sergio eta Ainhize



Ane Cerrejon Rodriguez
Apirilak 23
Aitor eta Amaia



Maialen Del Sol
Gurrutxaga Apirilak 23
Miguel eta Ruth

Paula Muñoz Mendo
Apirilak 1
Unai eta Sonia

Unai Lopez de Sabando
Tercero Apirilak 24
Andoni eta Elena

EZKONDUTAKOAK

- Fernando Mancebo eta Maria Almudena Isla Apirilak 12

HILDAKOAK

- Jose txo Alberdi Arriola • 68 urte • Apirilak 3
- Martin Agirre Ostolaza • 96 urte • Apirilak 4
- Andres Juaristi San Martin • 82 urte • Apirilak 5
- Iñaki Intxausti Muguruza • 77 urte • Apirilak 6
- Paquita Roa Rosillo • 58 urte • Apirilak 10
- Santiago Lopez Roman • 73 urte • Apirilak 13
- Esperanza Untzilla Agirre • 78 urte • Apirilak 14
- Feli Errasti Villar • 84 urte • Apirilak 14
- Mari Cruz Arrillaga Arriaga • 84 urte • Apirilak 15
- Juliana Irizar Goiburu • 98 urte • Apirilak 19
- Edurne Gabilondo Aizpitarte • 38 urte • Apirilak 20

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe
zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

400 lagun baino gehiagok parte hartu zuten Morkaiko Egunean

Mendizaletasunaren festa izango zela iragarri zuen Morkaiko Mendi Elkartek, eta halaxe izan zen zapatukoa. Eguraldi ona lagun, jendetza handiak parte hartu zuen mendi itzulian nahiz mendi itzultxoan, eta izandako erantzunarekin oso gustura agertu ziren antolatzaileak egunaren bukaeran. Elgoibar inguruko paraje ederrez gozatu ostean, parte hartzaileetako asko Plaza Handian bildu ziren, elkarrekin bazkaltzeko, eta sekulako giroa sortu zen bazkaritan. Bazkalostean, Atxutxiamaika aisialdi taldekoek jolasak antolatu zituzten Plazan bertan gaztetxoentzako eta ez zen aspertzeko aukerarik izan. Era berean, eta ohi legez, Andoitz Agirregomezkorta Morkaikoko presidentek eta Pako Iriondo Euskal Herriko Mendi Federazioko ohorezko presidentek Finalista Eguneko dominak banatu zituzten. **Argazki gehiago: www.elgoiBAREN.net webgunean.**



Eguzkiak gogotik berotu zituen mendizaleak, baina, hala ere, gogotsu egin zuten gorako bidea.



Jon Ander Urbieta mendararra, mendian gora.



Mendizaleak, erritmo onean.



Mendizaleak, ilaran, Kalamuara bidean.



Sasoiko daudela erakutsi zuten elgoibartarrek.



Eguraldi onak lagun, dozenaka mendizalek parte hartu zuten mendi itzulian.



Oskar Goikoetxea eta Idoia Larrañaga mendarorak, sastraka itsuan gora.



Debako mendizaleek ere ez zuten hutsik egin Elgoibarren.



Mendizaleak, errenkadan, Kalamuako tontorrerantz.



Haurrek lehenengo aldiz parte hartu dute mendizaletasunaren festan.



Iruiturrin atsedentxoak egin zuten gaztetxoek, indarberritzeko.



120 umek parte hartu zuten Morkaikoren mendi itzulitxoan.



Mendizale bat atsedentxo hartzen, maldan gora jarraitu aurretik.



Umore onik ez zen falta izan mendi itzuliko partaideen artean.



Mendi itzulia bukatu ostean, 400 lagun inguru elkartu ziren plazan bazkaltzeko.



Pako Iriondo eta Andoitz Agirregomezkorta saritutako gaztetxoekin.



Gaztetxoek Pako Iriondoren eskutik jaso zituzten Finalista Eguneko dominak.



Boluntarioak Aïastia-San Migelgo anoa postuan, parte hartzaileen zain.



Mendi itzulian eta itzulitxoan parte hartu zutenetako batzuek familia argazkia atera zuten Plazan.

Ekainaren 11n hartuko dute kargua zinegotzi berriek, eta haiek aukeratuko dute alkatea, bozketa bidez

EAJk lehen indarra izaten jarraitzen du Elgoibarren, eta Bilduk gehiengo osoa du Mendaron

Herriarrek adierazi dute zelako Udalak nahi dituzten, baina ez dira bat-batean osatuko. 50 bat eguneko prozesua izaten da, eta ordura arte aurreko agintaldiko alkateak eta zinegotziak jardunean ariko dira. Ohiko kudeaketa izango dute eskumen bakarra, eta tarte horretan ezingo dute erabaki handirik hartu. Hona hemen hauteskunde emaitzen laburpena, eta hemendik aurrerakoan jarraituko den prozesua, pausoz pauso.

Elgoibarren, EAJk lortu du boto kopuru handiena (2.272), eta lehen indarra izaten jarraitzen du, baina zinegotzi kopuruan Bildu koalizioarekin berdinduta dago, zazpina zinegotzirekin. Indar handiz sartu da Bildu, eta bigarren lekua kendu dio PSE-EEri. Alderdi Sozialistak behera egin du boto kopuruan, eta bi zinegotzi galdu ditu. Hala ere, kontuan hartu behar da 2007ko hauteskundeetan ez zela Bildurik, eta ezker abertzaleari ez ziotela hauteskundeetara aurkezten laga. PPK, bestalde, eutsi egin dio orain lau urteko hauteskundeetan lortutako zinegotziari, nahiz botoetan behera egin duen apur bat. Aralar eta Ezker Batua, berriz, ordezkari gabe gelditu dira [2007an, koalizioan aurkeztu ziren, eta bi zinegotzi eskuratu zituzten]. Mendaron, berriz, ezustekoa eman du Bilduk. Gehiengo osoa eskuratu du, botoen %48,12rekin [2007ko hauteskundeetan EAK eta ezker abertzaleak lortu zituztenak

batuta baino 98 boto gehiago jaso ditu]. Ondorioz, lehen indarra izateari laga dio EAJk, eta bi zinegotzi galdu ditu. Bost lortu ditu Bilduk, hiru EAJk, eta bat PSE-EEK.

Udal gobernu berriaren osaketa

Ohi legez, hauteskunde egunetik hogeiei egunera, hartuko dute kargua zinegotziek, ekainaren 11n alegia. Horretarako, Adinekoen Mahaia eratuko dute — zinegotzi gazteenak eta zaharrenak osatzen dute—, eta hark izendatuko ditu zinegotzi berriak. Kargua hartzeko, euren eginbeharrak zintzo beteko dituztela hitz eman beharko dute zinegotziek, Estatuko Funtsezko Arau gisa Konstituzioari men eginez. Alkatea aukeratzea izango da hurrengo pausoa. Ekainaren 11n bertan, bozketa bidez, alkatea hautatuko dute zinegotzi kargu hartu berriek. Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira alkategai, eta boto gehien lortzen dituen izango da alkate. Inork ez badu gehiengo eskuratzen, berriz, herritar gehienek bozkatu duten alderdiko zerrendaburuarentzat izango da kargua. Udalbatzako idazkariak boto-txartel bana emango die zinegotziei, eta haiek aukeratutakoaren izen-abizenak idatzi beharko dituzte han. Behin alkatea aukeratuta, hilabeteko epea izango dute udal berrien egitura antolatzeko.

Elgoibar



Alfredo Etxebarria
EAJ



Ricardo Garate
EAJ



Amaia Txurruka
EAJ



Eneko Etxebarria
EAJ



Bittori Zabala
EAJ



Ane Beitia
EAJ



Joseba Arrizabalaga
EAJ



Jose Luis Ibarzabal
BILDU



Jon Peli Uriguen
BILDU



Iñigo Zearolo
BILDU



Marijo Garmendia
BILDU



Ainhoa Mendibil
BILDU



Ander Soraluze
BILDU



Joseba Elustondo
BILDU



Ovidio Campello
PSE-EE



Fernando Suarez
PSE-EE



Francisco Javier Nuñez
PP

Mendaro



Sonia Garcia
BILDU



Borja Rodríguez
BILDU



Aitor Agirrebeña
BILDU



Eneko Ulazia
BILDU



Maria Jose Lopez
BILDU



Irune Berasaluze
EAJ



Felipe Castro
EAJ



Maria Angeles Olazabal
EAJ



Jose Antonio Rodriguez
PSE-EE

Txapeldunen ligako finala zuzenean emango dute bihar Garagardo Ferian jarriko duten pantaila handian

Domekara arte egongo da zabalik garagardoaren feria

Bartzelonak eta Manchester United taldeek jokatuko dute bihar Txapeldunen Ligako final nagusia, eta nahi duenak garagardo ferian ikusi ahal izango du partida, pantaila handian. Horren ostean, Kirkil DJak girotuko du gaua.

Trinitateetako Nagusien Danborradaren Batzordeak antolatu du garagardo feria, danborradarako dirua biltzeko asmoz. Atzo inauguratu zuten feria udal agintariek, eta domekara arte egongo da zabalik. Gaur, 18:30ean zabalduko dute karpa, eta 23:00ak aldera Kirkil DJaren musika emanaldia izango da. Bihar, eguerdiko 12:30etik aurrera egongo da zabalik feria, eta domekan ere ordu berean zabalduko dute. Arratsaldeko 17:00ak aldera itxiko dute.

Aurten bost zerbeza mota dastatzeko aukera izango dute karpara gerturaten direnek: bi garagardo hori (Foster eta Maes), alkoholik gabeko bat (Buckler), gorria (Afligen double) eta gari garagardoa (Paulaner). Litro erdiko pitxarretan salduko dute garagardoa, 3,5 eurotan.

Edariaz gain, zer jan ere egongo da garagardoaren ferian. 6,5 eurotan salduko dute txerri ukondoa, patata purea eta ogiarekin; 4,5 eurotan saltxitak ogiarekin, eta patata frijituen poltsa eta izozki terrina euro batean salduko dute. Antolatzaileek herritar guztiei egin diete ferian parte hartzeko deia.



226 musikari elkartuko dira bihar Plaza Handian, Debabarreneko txistularien alardean

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak Debabarreneko txistularien alardea antolatu du biharko. Eguerdiko 12:30etik aurrera, 226 musikari eta dantzari batuko dira Plaza Handian, eta bederatzi musika pieza eskainiko dituzte. Batetik, Deba, Eibar, Mutriku, Ermua eta Elgoibarko txistulariek hartuko dute parte. Horrez gain, Soralezeko Ezoziko Ama eta musika eskolako abesbatzak ere etorriko dira. Elgoibartarren artean, bestalde, ondorengoek hartuko dute parte: Parrokiako abesbatzak, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako abesbatzak eta dantzariak, Haritz Dantzari Taldeak eta metal boskoteak.



Emozioak askatzeko teknikei buruzko hitzaldia

Iñaki Figueiredo terapeuta elgoibartarrak emozioak askatzeko teknikei buruzko hitzaldia eskainiko du datorren barixakuan, ekainaren 3an. Besteak beste, antsietatea eta estresa baretzeko teknikak azalduko ditu, eta pertsonen inkontzientiaz egingo du berba. Hitzaldia 19:30ean hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hitzaldia doan izango da, eta antolatzaileek herritar guztiei egin die deia.

Basoei buruzko ipuinak, Udal Liburutegian

Miriam Mendoza ipuin kontalariak basoei buruzko ipuinak kontatuko ditu datorren eguenean, Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegian. 17:00etan hasiko da ipuin kontalaria ipuinak kontatzen.

Herri Eskolako guraso taldeak jarriko du txosna azken zapatuko ferian

Tortilla eta txorizo pintxoak salduko dituzte

Maiatzeko azken zapatuko feria antolatu dute biharko Udalak eta Debemenekek. Oraingo honetan, Herri Eskolako guraso taldeak kudeatuko du feriako txosna, eta eguerditik aurrera, patata tortilla eta txorizo pintxoak banatuko dituzte. Horrez gain, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da 9:00etatik 14:00etara, eta Plaza Txikian ganadu erakusketa jarriko dute.



Naturaren sekretuak izeneko udalekuak antolatu ditu Atxutxiamaikak uztailerako

'Lurra eta Hizkuntza' egitasmoaren barruan, Naturaren Sekretuak izeneko udalekuak antolatu ditu Atxutxiamaikak uztailerako. LH3tik LH6rako umeentzako udalekuak dira, eta helburua herria bera eta ingurunea ezagutzeko da. Horretarako, Elgoibarko baserrietara egingo dituzte bisitak, eta baserriarekin jardungo dute lanean. Era berean, mendi-irteerak ere egingo dituzte, ingurunean dagoen ondare naturala ezagutzeko. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, plazak mugatuak dira, eta izenemate ordena errespetatuko da. Interesatuak ekainaren 15era arte eman dezakete izena. Informazio gehiagorako 943 741 626 (Naiara) telefonora deitu daiteke.

Azken Eguna ospatuko dute gaur, Ludotekako Aste Nagusiaren barruan



Ludotekako bigarren Aste Nagusia ospatzen dihardute aste honetan, eta gaur, Azken Eguna ospatuko dute. 17:00etan pailazo emanaldia izango da, eta ondoren, futbolen txapelketa egingo dute. Amaieran, parte hartzaileentzako luntxa egongo da. Bihar, bestalde, Familia Eguna ospatuko dute, eta Urdaibaira joango dira eguna pasatzera.

Siete C taldearen kontzertua gaur, Kultur Etxeko sotoan

Siete C talde donostiarrak kontzertua eskainiko du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. Zortzi urtez lanean jardun ostean, Siete C izenarekin itzuli da eskenatokira Raidzdx taldea. *Familia* izena jarri diote euren estreinako lanari. Disko indartsua eta hunkigarria egin dute, estilo akustikorantz jota Sinuosek antolatu du kontzertua, Lerun jatetxearen laguntzaz. 22:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrerak hiru euro balio ditu.

Kirol argazki lehiaketa antolatu dute

Udaleko Gazteria Sailak eta Kirol Patronatuak kirol argazkien lehiaketa antolatu dute, Ongarri argazkilari elkartearekin batera. Edonork hartu dezake parte lehiaketan, baina partaide bakoitzak ezingo ditu lau argazki baino gehiago aurkeztu lehiaketara. Antolatzaileek hiru sari emango dituzte: Herritarrarentzako Saria, 35 urtetik beherakoentzako saria (lehenengoa 300 eurokoa eta bigarrena 200 eurokoa), eta sari orokorra (lehenengoa 300 eurokoa, eta bigarrena 200 eurokoa). Interesatuak uztailaren 15a aurretik aurkeztu beharko dituzte argazkiak, Olaizaga kiroldegian. Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute Kultur Etxean, eta ondoren, jendaurrean jarriko dituzte ikusgai argazki guztiak. Informazio gehiagorako Gazteria Sailera edo Kirol Patronatura jo daiteke.

Gaur ez da Kiribil etorriko

Gaur Madalan egin behar zuten Kiribil egitasmoaren jardunaldia bertan behera geratu dela azaldu dute Elgoibarko Izarrako arduradunek. Batetik, umeen ikasturte amaierako jaialdiak izango direlako gaur, eta gainera, Madalako parkean garagardo feria egongo delako. Ekainean, berriz, barixaku guztietan etorriko da Kiribil Plaza Handira, umeekin jolastera, baina hilaren 24an, Altzolan egongo da, San Juan jaian.

Mailaz igotzeko partida erabakigarria jokatu du bihar Alkortak

Sanloko arduradunek herritarren babesa eskatu dute

Alkorta senior mutilen taldeak galdu egin zuen joan zen asteburuan Escolapios taldearen kontra, eta horren ondorioz, partida erabakigarria jokatu beharko du bihar Zarautzen kontra. Elgoibartarrak sailkapen nagusiko lehen postuan daude, Trapaga taldearekin berdinduta. Egia taldea puntu batera daukate, eta Zarautz laugarren lekuan dago hiru puntura. Biharko partida Olaizaga kiroldegian jokatu dute, 18:00etatik aurrera, eta klubeko arduradunek herritarren babesa eskatu dute. Une garrantzitsu honetan herritarren animoak Bigarren Nazional Mailara igotzeko 'ezinbestekoak' izango direla adierazi dute.



Kopako finala eta udaberri torneoa

Sanloko lau taldek Gipuzkoako Kopako finalak eta Udaberri Txapelketa jokatu dituzte asteburuan, nork bere mailan. Tecnifuelle senior nesken taldeak etxean jokatu du Zarautzen kontra, eta jubeni-

len Grupo Eibar taldeak Usurbilen. Kadete mailako IMHk, bestalde, hiruko txapelketa jokatu du Zumaian, Bera Bera eta Zarautz taldeen kontra. Azkenik, Beristain taldekolek Udaberri Txapelketa jokatu dute Legazpin, hango Katillu taldearen aurka.

Igeriketa Eguna antolatu dute biharko

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna ospatuko dute bihar, Olaizaga kiroldegian. 6tik 14 urtera bitarteko umeek hartuko dute parte, eta adina-aren arabera, froga ezberdinak egingo dituzte. 10:00etan hasiko dira frogak eta eguerdirako amaituko dituzte.

Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako azken jardunaldia, bihar

Elgoibarko bolariak bihar jokatu dute Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia, Azpeitin. Sailkapen nagusian Asola Berriko bolariak daude lehenengo bi postuetan, baina hirugarren lekuan Imanol Osoro aiastiarra dago, lehen sailkatuarengandik lau puntura. Jardunaldiaren ostean, Bolari Eguna ospatuko dute, eta besteak beste, Josetxo Esteban 'Azitain', Antonio Antxustegi, Segundo Pa-gaegi, Sabin Arriaga, Antonio Ibarluzea eta Antolin Arizmendiarieta omenduko dituzte.

Sei elgoibartar eta bi mendaroar lehiatuko dira domekan Zegama-Aizkorri maratoian



Rebort eta Conde 2009ko maratoian.

Zegama-Aizkorri maratoki entzutetsua jokatu da domekan, eta guztira, 450 korrikalarik parte hartuko dute,

tartean sei elgoibartarrek eta bi mendaroarrak: David Condek, Xabier Bergaretxek, Asier Arrietak, Ander Barrenetxeak, Manolo Ramosek, Jon Revertak, Gotzon Zulaiak eta Maite Maiorak. Skyrunning Word Series 2011rako proba puntuagarria izango da aurten Zegama-Aizkorri Maratoia.

Gipuzkoan ez ezik, Euskal Herrian antolatzen diren mendiko lasterketen ikurra da Zegama-Aizkorri. Hamargarren urtea beteko du aurten, eta ibilbidea azken urteotako bera izango da. Hala, lasterkariak Aratz eta Aizkorriko mendilerroetatik ibiliko dira. Zegama herritik Otzaurteko gainera heldu ohi dira parte-hartzaileak, eta tontor honeta-

tik aurrera, ingurune zoragarri batean sartuko dira. 42,195 kilometroko ibilbide teknikoa eta zaila osatu beharko dute, eta 5.472 metroko desnibel metatua gainditu. Bidean, zuhaitzi ederrak, haitz biziko malkar zakarrak eta mendiko larreak tartekatzen dira. Proban zehar hamahiru kontrol-gune izango dira, eta horietatik igarotzea ezinbestekoa izango dute lasterkariek.

Korrikalariek gehienez ere zortzi ordu izango dituzte helmugara iristeko. Iaz, Kilian Jornet kataluniarra (3:56:30) nagusitu zen gizonaetara, eta Emanuela Brizio (4:47:51), emakumezkoetara.

Elgoibarko pilotariak final laurdenetara iritsi dira Herriarteko Txapelketan

Zaleen babesa eskatu dute antolatzaileek

Lagunak taldeko pilotariak beste pauso bat eman dute Herriarteko Txapelketan. Andoainen kontra 3-0 irabazi zuten joan zen astean, eta kanporaketa 5-1 geratu da elgoibartarren alde. Garaipen horrekin, Elgoibarko pilotariak final laurdenak jokatzeko sailkatu dira. Azkoiti izango dute aurrez aurre. Herriarteko Txapelketan txapel gehien irabazi dituen herria da Azkoitia, eta arerio gogorra izango da. Joaneko partidak gaur jokatu dituzte Ikastolako frontoian 20:45etik aurrera, eta datorren astean jokatu dituzte itzulikoak.



CD Elgoibarrek urteko batzar nagusia egingo du gaur

CD Elgoibarrek urteko batzar nagusia egingo du gaur arratsaldean. 19:00etarako egin dute lehenengo deialdia, eta 19:30erako bigarrena. Besteak beste, klubaren estatutu berriak azalduko dituzte. Batzarra Kultur Etxean izango da.

Padel eta tenis txapelketak antolatu dituzte

40-15 elkarteak tenis eta padel txapelketak antolatu ditu. Tenis txapelketa bi multzotan banatuko dute. 14 urtetik gorakoek artean 30 lagunek hartuko dute parte, eta gazteen multzoan hamabi lagunek eman dute izena. Faseko kanporaketak ekainaren 12rako jokatu dituzte. Final zortzirenak eta final laurdenak ekainaren 26an jokatu dira, finalerdiak uztailaren 6an eta final nagusia uztailaren 9an. Padel txapelketan, bestalde, hamabost bikotek eman dute izena.

Emaizta onak lortu dituzte Elgoibarko xakelariek Durangoko txapelketan

Mekatar taldeko xakelariek Durangoko txapelketan hartu zuten parte joan zen asteburuan, eta emaitza onak lortu zituzten. Markel Kerexetak hiru partida irabazi eta bi galduta, zortzigarren egin zuen alebinetan. Benjaminetan, bestalde, Paul Fernandez seigarren sailkatu zen, bigarrenarekin berdinduta, lau partida irabazita eta bakarra galduta. Urko Iriondok, bestalde, bederatzigarren egin zuen hiru partida irabazi eta bi galdu ostean.



EMAITZAK

FUTBOLA

Antiguoko 4 – Elgoibar 3 (Inf.)

Elgoibar 2 – Zarautz 2 (Kad. A)

Elgoibar 1 – Lagunak 5 (Ohorezko inf.)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Andoain 8 – Elgoibar 22 (Kad.)

Andoain 18 – Elgoibar 22 (Jub.)

Andoain 18 – Elgoibar 22 (Nag.)

Udaberrirako Txapelketa

Lagunak 22 – Eskoriatza 10 (Nag.)

Lagunak Txapelketa

Ramis 15 – Vargas 18 (Inf.)

Aranbarri 11 – Urruzola 18 (Inf.)

Loidi 18 – Merino 6 (Inf.)

Zubizarreta 18 – Etxeberria 9 (Benj.)

Ruiz 10 – Urzainki 18 (Benj.)

Leniz 18 – Aranbarri 17 (Benj.)

ARETO FUTBOLA

Egintza 6 – Concepto Createch Elg. 1

Donosala 2 – King-Kong Elg. 1

ESKUBALOAIA

Escolapios 32 – Alkorta Elg. 28 (Sen. mut.)

Tecnifuelle Elg. 37 – Ereintza 18 (Sen. net.)

Urola 20 – Beristain Elg. 31 (Jub. mut.)

Bartolo jatetxea 13 – Lauko Elg. 31 (Kad. neska.)

Txarriduna Elg. 35 – Ereintza 27 (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

12:00 Elgoibar – Allerru (Ohorezko jub.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

18:00 Alkorta Elg. – Zarautz (Sen. mut.)

Domeka, 29

10:00 Elgoibar – Legazpi (Aleb. neska.)

11:30 Tecnifuelle Elg. – Zarautz (Sen. neska.)

ESKU PILOTA

Barvakua, 27

20:45 Elgoibar – Azkoiti (Herriarteko txapelketa)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere (etxeetan, tabernetan...) ☎ **618 163 061**
- Emakumea lanerako prest. Pertsona nagusiak zainduko nituzke edo sukaldari laguntzaile bezala jardungo nuke. (Orduka edo asteburuetan) ☎ **689 273 664**
- Edozein motako garraio lanak egiteko prest nago. Furgoneta handia daukat. ☎ **628 512 278**
- Gizonezkoa. Txofer egingo luke lana, B-1 karneta eta kotxe propioa daukat. ☎ **650 538 274**
- Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.. ☎ **648 603 029**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **652 715 908 / 943 742 201**
- Emakumea lan bila, nagusiak nahiz umeak zainduko nituzke. ☎ **685 212 060**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **650 756 601**
- Emakumea lan bila. Sukalde laguntzaile edota zerbitzari lanak egiteko prest. Nagusiak nahiz umeak zainduko nituzke. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Gizonezkoa ehungintzan edota lantegietan garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **677 155 611**
- Emakumea lan bila. Sukalde laguntzaile edota zerbitzari lanak egiteko prest. Nagusiak nahiz umeak ere zainduko nituzke. ☎ **608 474 923**
- 50 urteko emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **677 097 015 (Carmen)**

- Emakumea lan bila. ☎ **943 741 977 / 648 824 846**
- Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **681 018 451**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo umeak nahiz nagusiak zaintzeko prest. Orduka egingo nuke lan. ☎ **618 052 967**
- Emakumea etxeko lanak egin eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Geriatria tituluarekin. ☎ **617 567 336**

ESKAITZA

- Zerbitzaria behar da asteburuetan eta jai egunetan Mendaron lan egiteko. ☎ **943 030 150**
- Zerbitzaria behar da Eibarren lan egiteko, esperientziaduna. ☎ **620 674 529**
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943 030 150**
- Komertzial euskalduna behar da. Auto propioarekin. CV bidali nereabat@euskalnet.net-era
- Tabernako sukalde edota barran lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ **666 559 513**
- Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da, goiz eta arratsalde lan egiteko. Autoa izatea derrigorrezkoa da. ☎ **610 207 524 / 651 703 406**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisia hartuko nuke alokagai Elgoibarren. ☎ **698 390 818**
- Neska batek etxea hartuko luke Elgoibarren alokairuan. ☎ **697 735 046**

- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean. Bi logela, guztiz erreformatua eta altzariz hornitua. 590 euro hilean, kontratuarekin. (Juan) ☎ **659 304 159**
- Benidormeko erdigunean apartamentua alokairuan. Aire egokitua, erosoa eta auzokideentako igerilekuarekin. ☎ **943 740 628**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean ☎ **659 304 159**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. ☎ **671 750 872**

GARAJEAK

- Garaje marraduna salgai Leku Ederren, laugarren solairuan (55€) ☎ **660 042 159**

LOKALAK

- Lokala salgai. Eguzkitsua, 200 m² hiru solairutan banaturik. Ate txiki eta handia. Berri-berria. Merke, 100.000 €, Pedro Muguruza, San Pedro aldean. ☎ **610 458 552**

BESTELAKOAK

- Perikitoak ihes egin du, San Bartolome kalean. Urdin argia eta zuria da. ☎ **615 761 198**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta). Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro. Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

Idama

Maiatzeko irabazlea:
EMILIA NOGALES

Ekaineko saria:
ORDU T'ERDIKO MASAJEA

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



• Zorionak, **aitaxo**, gaur zure urtebetetze eguna delako. Amatxo eta alaba Iratiren partez. Asko maite zaitugu.



• Zorionak, **Jon**, asteazkenean urte bat beteko duzulako! Patxo handi bat familiako eta bereziki, Marenen eta Noraren partez.



• Zorionak, **amatxo**, zure altxor Nahia eta Naroaren partez.



• Zorionak, **Haritz**, maiatzaren 30ean 7 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Nagore**, atzo 8 urte egin zenuelako. Etxekoekin partez, muxu handi bat.



• Igandean 3 urte betezen dituelako, zorionak eta muxu bat **Ainhizeri**, etxeko denon partez



• Atzo gure etxeko 'terremotoak' 2 urte bete zituen. Zorionak, **lago** guztion eta, bereziki, Juneren partez



• Zorionak, **amama** zure 80. urtebetetzean. Orain arte bezain guapa jarraitu dezazula! Milaka muxu familia guztiaren partez.




• Zorionak, **Jon!** On-do-ondo pasa zure egunean, zapatuan. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Tamar** 15 urte! Neskaxa polita! Segi horrela, txapeldun! Milioi bat muxu gurasoen eta Aidaren partez.



• Zorionak, **Carolina eta Irune**, zuen urtebetetzeagatik. Familiako guztien partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Aritz eta Naroa**, bihar larunbata zuen seigarren urtebetetze eguna izango delako. Oso ondo pasa! Ospakizun berezi bat egingo dugul Zuen familiakoekin partez.



• Zorionak, **Andres!** Muxu asko gurasoen eta bereziki anaia Johan eta Fernandoren partez.



• Zorionak **bikote!** Iritsi da ilusioz prestaturiko eguna! Zoriontsu izan! Muxu handi bat familiakoekin partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €.
Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 e€.
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.
BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen,
edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Eskerrik asko 1961ean jaiotakoekin kinto ospakizunera etorri zineten guztioi. Oso ondo pasatu genuen! Ea hurrengo urtean errepikatzen dugun!

27 barixakua

Jaialdia

18:30 Ikastolako jaialdia
Haur Hezkuntzako ikasleen jaialdia, Ikastolako frontoian.

Musika

19:30 Kale kantarien saioa

Musika

22:30 Kontzertua
Siete C taldearen kontzertua Kultur Etxeko sotoan.

28 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Nafarroa Plazan eta Plaza Txikian.

Musika

12:30 Txistularien alardea
Debabarreneko txistularien alardea, Plaza Handian.

30 astelehena

Musika

19:30 Jaialdia
Musika eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdia, musika eskolako auditorioan.

31 martitzena

Musika

19:30 Jaialdia
Musika eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdia, musika eskolako auditorioan.

1 eguaztena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolako jaialdia
Herri Eskolako patioan.

Musika

19:00 Erromeria
Trikitixa Eskolako ikasleen erromeria, Madalako parkean.

2 eguena

Jaialdia

19:00 Herri Eskolako jaialdia
Herri Eskolako patioan.

3 barixakua

Musika

19:30 Kontzertua
Musika Eskolako dantza eta talde finkoen saioa, Herriko Antzokian.

Hitzaldia

19:30 Emozioak askatzeko teknikak
Iñaki Figueiredok eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika

22:00 Rock kontzertua
Jon&Sugramas eta Dukes taldeen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.



UDALEKUAK ANTOLATU DITUGU **GORLIZEN**.
IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO EKAINAREN 11 ARTE.

UZTAILAREN 5EAN **GAMARRAKO IGERILEKUETARA IRTEERA**.
GAZTELEKUKO PLAZAK AMAITZEAN ITXIKO DA IZENA EMATEKO EPEA.

OKINDEGIA

27 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK (24 orduz)

27 Yudego
28 Fernandez
Goizez: Etxeberria (Santa Ana)
29 Fernandez
30 Yudego
31 Zabaleta
1 Etxeberria (Santa Ana)
2 Ibañez
3 Garitaonandia-Bidasolo

Fernandez - Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez - Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta - Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Piratas del caribe»

27, barixakua: 22:15
28, zapatua: 19:00/22:15
29, domeka: 19:00
30, astelehena: 21:30



«Piratas del caribe» Zuzendaria: Rob Marshall.
EEBB, 2011. Iraupena: 137 minutu. Generoa:
Abentura, komedia. Aktoreak: Johnny Depp,
Geoffrey Rush, Penelope Cruz, Ian McShane.
Jack Sparrow kapitaina aspaldi ezagututako
emakume batekin elkartuko da berriro. Beraien
artean sortuko den harremanarekin apur bat
harrিতa dago kapitaina: ez daki maitasuna den,
edo emakume horrek gaztetasunaren iturria
aurkitzeko interes hutsa duen. Halako batean,
emakume horrek Queen Anne's Revenge
itsasontziari erasotzeko proposamena egingo
dio, Barbanegra kapitainaren ontzia, hain zuzen
ere. Une horretatik aurrera Sparrow kapitainak ez
du jakingo nor den arriskutsuagoa; Barbanegrea
ala emakume misteriotsua.



% 100erainoko FINANTZAKETA ESKAINTZEN DUGU AZKEN ETXEBIZITZAK MENDARON

- ◆ 2 eta 3 logelako pisuak eta duplexak
- ◆ Material bikaineko etxebizitzak
- ◆ Horma-armairuak
- ◆ Sukaldea hornitua
- ◆ Abantaila fiskalak: B.E.Z.-ik gabe (OTZ %2,5 edo %4)
- ◆ Prezioak: 193.300 eurotik aurrera (prezio barnean etxebizitza, trastelekua eta garaiea)



**Gure etxebizitzetako bat erosten baduzu, logela nagusiko altzariak
oparituko dizkizugu edota txeke opari bat bestela**

- Landareak
- Animaliak
- Elgoibar eta ingurua ezagutu
- Mendia
- Baseerriak
- Herriko ondarea
- Igerilekua
- Hondartza

DESKONTUAK

Elgoibarko Izarrako bazkideei %10eko deskontua aplikatuko zaie.
 Guraso biak badira bazkide, izena ematen duten seme-alaba guztiei aplikatuko zaie.
 Guraso bakarra bada bazkide, seme edo alaba bati bakarrik egingo zaio.
 Familia ugariak %10eko deskontua izango dute.

- Izena ematea: **EKAINAREN 15**era arte.
- Ordainketa: Kutxa 2101 0036 65 0124148420
- Kutxako ordainagiria Elgoibarko Izarrara ekarri behar da (ubitarte 4, Tel: 943741626- Naiara) izena emateko orduan.
- Izen-ematearen ondoren kale eginez gero, %80a bueltatuko da arrazoitutako kasuetan.
- Izen-ematea, Elgoibarko Izarran edo atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com e-postan egingo da.
- Matrikula bi zatitan ordaintzeko aukera egongo da (erdia izena ematean eta beste erdia udalekua hasi baino lehen)
- PLAZAK MUGATUAK DIRA, aurten denera 30 partaide izango dira, eta matrikulazio ordena errespetatuko da.



NATURAREN SEKRETUAK

Astelehen, eguazten eta barixakuak:

Goizez (09:00-13:30 Plaza Handian)

Martitzen eta eguenak:

Egun osoko irteerak

(09:00-19:00 Plaza Handian)



TXANDAK:

| | Kuota | Bazkide |
|-----------------------|-------|---------|
| UZTAILAREN 4tik 15era | 65 | 58 |
| UZTAILAREN 18tik 29ra | 65 | 58 |
| BI TXANDAK | 120 | 108 |

LH 3-6 koentzako

